

## GIL 47 Okinako haizpitarteko ebakia



Okinako arroilaren sarrera; Paleozenoko dolomien lehen gailur-azaleratzeak ageri dira Goi Kretazeoko tuparri eta kalkareniten gainean.

### Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 42° 44,51' 51,71 " N

Long.: 2° 35' 32,98" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 533.350,12 m

Y: 4.733.011,12 m



### Nola iritsi

Gasteiztik, A-3104 errepidea hartu behar da, SE norabidean, Uribarri herriraino. A-4133tik jarraitu behar da Okina herriraino. Ibaiaren ezker aldeko bidetik jarraitu behar da apartekaleku batera iritsi arte. Handik, arroila oinez zeharkatu behar da.

### GILaren deskribapen laburra

Okinako arroila balio geologiko eta paisaia-baliabide nabarmeneko elementu-multzo batez osatuta dago.

Ikuspuntu geomorfologikotik, 4 km luzeko arroila bat da, N-S norabidekoa, lhuda ibaiak landua. Haitzarte bat da, ez oso malkartsua, batez beste 400 metro zabalekoa, eta desnibela, guztira, 150 m da.



Oligozenoko konglomeratu karedunen mailetako uharrri eta harritzar handien xehetasuna.

Ibaiaren ibilguan, tufak eratzean sortutako ur-jauzi eta putzu txikiak ikus daitezke. Era berean, arroilaren ertzetan ibilguaren higadura-maila batzuk ikus daitezke, baita gaur egungo maila baino 10 m gorago kokatutako zenbait ibai-terraza eseki ere.

Ikuspuntu estratigrafikotik, arroilak badu garrantzia: itsastarretik kontinentalerako iragaitza erakusten du Trebiñuko sinklinalaren ipar-alpean, 30 bat graduko hegoalderako okerdurarekin. Haitzarteak, hasieran, Goi Kretazeoko tuparri eta kalkarenitak ebakitzen ditu. Haien gainean, Paleozenoko dolomia-paketea dago; berak sortzen du arroilaren lehen labarra. Bigarren irtengunea Oligozenoko konglomeratu karedunek sortu dute; Paleozenoko itsas metakin karedunen gainean kokatuta daude modu diskordantean. Konglomeratuak, alubioi-kono proximalaren metakin gisa interpretatuak, kareharri paleozeno eta mesozoikoen kareharri-bloke biribildu handiz eratuta daude, eta modu jarraituan igarotzen dira Behe Miozenoko hareharri eta buztinetara; azken horiek alubioi-kono distalago bat adierazten dute, edo baita ibaiaren uholde-eremuak ere.

## Behatzeko punturik onena

Arroilan zehar.

## Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** Ez dago.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 46, GIL 54, GIL 74, GIL 75.



Tufek eratutako presa txiki baten xehetasuna.

## Valoración del LIG

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
<b>Interes zientifikoa</b>	Geomorfologikoa			●	
	Hidrogeologikoa		●		
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa			●	
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
<b>Interes ekonomikoa (erauzketa)</b>			Iraganean	Potentziala	Martxan
<b>Interes kulturala:</b>					
<b>Oharrak:</b>	Arroilaren sarrera Araban dago, baina bigarren erdia Trebiñuko lurretan dago.				